

# Gizarte Hezkuntzako Gradua

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

| DONOSTIA | SAN SEBASTIÁN |



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Facultad de Filosofía y Ciencias de la Educación

Tolosa hiribidea 70  
20018 DONOSTIA (Gipuzkoa)

e-mail: [practicum.fice@ehu.es](mailto:practicum.fice@ehu.es)  
<http://www.sc.ehu.es/sfweb>



### ■ IKASKETEN DESKRIBAPENA

Gizarte Hezkuntza Graduko tituluaren proposamenak helburu bikoitza planteatzen du: lehenengoa, ikasleari prestakuntza teorikoa eta praktikoa ematea da gizarte eta hezkuntzako gertaera osorik ikasteko aukera izan dezan, eta, aldi berean, gizarte eta hezkuntzako eskuhartze prozesuen eta sistemen garapena, antolakuntza eta analisia egin ahal izateko printzipioak ezagutu ditzan. Bigarren helburua, berriz, ikasleari prestakuntza praktikoa eta balioaniztuna ematea da, bere jardueraren eremuetan profesionalki hedatzeko aukera emango diona.

### ■ SARTZEKO PROFILA

Gizarte Hezkuntzako profesionalak, hezkuntza ez-formalaren arloan, pertsona helduen eta hirugarren adinekoen prestakuntzan, sozialki zaugarriak diren pertsonen gizarteratzean eta animazio sozio-kulturalean lana egiten duenez, ikasleak, besteak beste, honako ezaugarri hauek izango ditu:

- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartze ez-formalekiko sentikortasun nabarmena
- Hainbat talderekin eta hainbat esparrutan lana egiteko motibazioa
- Pertsonen arteko erlaziorako gaitasun egokia, komunikatzeari eta jendearekiko enpatiarri dagokienez
- Pentsamendu analitiko eta sortzailea, eta jarrera kritikoa gizarte-gertaeren aurrean
- Parte-hartze, lankidetzeta eta talde-lanerako interesa

### ■ IKASKETEN ANTOLAMENDUA

Kredituak							
	Adarreko oinarritzko irakasgaiak	Beste adar batzuetako irakasgaiak	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Kanpo-praktika	Gradu Amaierako Lana	GUZTIRA
1. maila	18	12	30				60
2. maila	24	6	30				60
3. maila			36	12	12		60
4. maila				18	30	12	60
GUZTIRA	42	18	96	30	42	12	240

### ■ TITULUAREN PROGRAMA

Ikasketen plana zazpi modulutan egituratzen da. Lehendabiziko hiru urteetan lauhilabeteka banatzen dira eta laugarren mailan urte osoko modulu egiten da. Gizarte Hezkuntzako eta Pedagogiako graduen lehen hiru moduluak komunak dira (90 kreditu). Irakasgaiak 6 ECTS kreditukoak dira, Practicumean eta Gradu Amaierako Lanean izan ezik. Irakasgai guztiak euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dira.

IKASTURT.	LAUHIL.	MODULUA	IRAKASGAIK
1	1	<b>1M- Hezkuntza Testuinguruak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hezkuntza, Hizkuntza, Kultura eta Aniztasuna</li> <li>2. Estatistika Hezkuntzan</li> <li>3. Hezkuntzaren Historia</li> <li>4. Garapenaren Psikologia</li> <li>5. Hezkuntzaren Soziologia</li> </ol>
	2	<b>Hezkuntza Lanbideak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hezkuntza Komunikazioa eta Harremana</li> <li>2. Giza Eskubideak eta Gizarte eta Hezkuntza Politikak</li> <li>3. Identitate eta Garapen Profesionala</li> <li>4. Hezkuntza Legeria eta Nazioarteko Ikuspegia</li> <li>5. Pedagogia: Teoria eta Hezkuntza Erakundeak</li> </ol>
2	1	<b>Hezkuntza Prozesuen Oinarriak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Didaktika Orokorra</li> <li>2. Hezkuntza Prozesu, Zerbitzu eta Erakundeen Antolaketa eta Kudeaketa</li> <li>3. Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa</li> <li>4. Bazterketa eta Inklusio Prozesuak</li> <li>5. Hezkuntzaren Psikologia</li> </ol>
	2	<b>Gizarte eta Hezkuntzako Programen Plangintza, Kudeaketa eta Ebaluazioa</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gizarte eta Hezkuntza Ikerketa</li> <li>2. Esku-hartzearen Plangintza</li> <li>3. Gizarte eta Hezkuntzako Programen Ebaluazioa</li> <li>4. Esku-hartzeko Proposamen Metodologiko Orokorrek Bazterketa Egoeretan</li> <li>5. Informazioaren Teknologia eta Komunikazioa Gizarte Hezkuntzan</li> </ol>
3	1	<b>Dinamizazio Soziala eta Komunitateko Ikuspegia</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Komunitate Garapena</li> <li>2. Gizarte eta Kultura Dinamizazioa</li> <li>3. Giza Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza</li> <li>4. Practicuma (12 ECTS kreditu)</li> <li>5.- Hautazkoa: Euskararen Arauak eta Erabilera</li> </ol>
	2	<b>Gizarte eta Hezkuntzako Esku-hartzeak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartzea Familiar, Haurtzaroan, Nerabezaroan eta Gaztaroan</li> <li>2. Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartzea Testuinguru Kaltetuetan</li> <li>3. Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartzea Pertsona Helduekin, Adinekoekin eta Menpeko Pertsonekin</li> <li>4.- Hautazko bi irakasgai: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kulturarteko Hezkuntza</li> <li>- Hezkuntza eta Hizkuntza Aniztasuna</li> <li>- Familia Orientazioa</li> <li>- Bizitza Aktiborako Trantsizioa</li> <li>- Komunikazioa Euskaraz: Hezkuntza eta Gizarte Arloak</li> </ul> </li> </ol>
4	1	<b>Garapen Profesionala eta Gizarte eta Hezkuntzako Jarduera</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1.- Practicuma (12 ECTS kreditu)</li> <li>2.- Hautazko hiru irakasgai: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldeen Dinamika Gizarte eta Hezkuntza Jardueran</li> <li>- Ikerkuntza Proiektua</li> <li>- Lanbidearen eta Enpleguaren Garapenerako Orientazioa</li> <li>- Ikuspegi Soziolinguistikoak Gizarte Esku-hartzean</li> </ul> </li> </ol>
	2	<b>Garapen Profesionala eta Gizarte eta Hezkuntzako Jarduera</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1.- Practicum (18 ECTS kreditu)</li> <li>2.- Gradu Amaierako Lana (12 ECTS kreditu)</li> </ol>

## ■ MUGIKORTASUN-PROGRAMAK

Gizarte Antolakuntzako ikasketak Espainiako unibertsitateetan, Europako herrialde gehienetan eta Amerikako hainbat unibertsitateetan ematen dira.

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, Gizarte Hezkuntza Graduak emango dituenak, UPV/EHUk bultzatutako mugikortasun-programetan parte hartzen du: SICUESÉNECA, ERASMUS, LATINOAMARIKA ETA BESTE NORAKO BATZUK. Programei, norakoei, araudiei eta abarrei buruzko informazioa helbide honetan kontsulta daiteke: <http://www.relaciones-internacionales.ehu.es/p274-home/eu/>

## ■ PRAKTIKAK

Practicumak lanean sartzeko prozesua errazten du, ikasleari esku-hartze eremu batean edo erakunde batean egoteko aukera emanez. 42 kreditu ditu; 12 hirugarren mailan egiten dira eta gainerako 30ak laugarren mailan.

Practicumak lanean sartzeko prozesua errazten du, unibertsitatearen eta lan-arloaren arteko lotura egiten du eta teoria eta praktika uztartzen ditu. Practicumean gizarte-hezitzaileen eginkizun profesionalak garatzen dira, hau da: diagnostikoa, plangintza, esku-hartzea, ebaluazioa, berrikuntza, ikerkuntza eta prestakuntza.

Praktikak egiteko, Filosofia eta Gizarte Zientzien Fakultateak 300 lankidetzak-hitzarmen baino gehiago sinatu ditu, besteak beste, honako esku-hartze eremu hauekin: gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea hurrekin eta/edo nerabeekin babes-sistemetan (harrera etxebizitzak, etxe babestuak, ...); justiziako esku-hartzea (epaitegiak); esparru soziokulturalak eta aisialdiko dinamizazioa (aisialdiko elkarteak, ludotekak, informazio-zerbitzuak,...); eskuhartzea prestakuntza etengabea; esku-hartzea bazterkeriako egoeretan (jantoki sozialak, oinezkoen harrera, kartzelak,...); droga-mendekotasuna (birgaitzeko zentroak, hainbat patologia dituzten pertsonentzako zerbitzuak,...); adineko pertsonak (eguneko zentroak, etxeak, elkarteak, egoitzak,...); ezinduak (tailerrak, hezkuntza bereziko zentroak, elkarteak, fundazioak,...); komunitateko esku-hartzea (hiritarren proiektuak, bizilagunen elkarteak, komunitateko garapen-planak, immigranteentzako informazioa eta aholkularitza, mena); eta, ingurumen-hezkuntza, osasunerako hezkuntza eta garapenerako lankidetzak (hainbat herrialdeetan eginiko proiektuak).

## ■ ESKURATUTAKO GAITASUNAK

- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen eta bere lan-esparruen oinarri teorikoak (psikologikoak, soziologikoak eta pedagogikoak) ezagutzea eta ulertzea, eta, baita, prozesu horien oinarrian dauden legeak eta gizarteko, kulturako eta hezkuntzako politikak ere.
- Hautemandako premiei erantzuteko gizarte eta hezkuntzako programak, proiektuak eta planak diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea, arreta berezia eskainiz arriskuko eta/edo bazterkeriako egoeran dauden taldeei eta profesionalen laguntza eta trebakuntzako premiei.
- Hezkuntza-harremanak eta gizarte-sareak ezartzeko aukera emango duten testuinguruak sortzea, pertsonaren, taldearen eta komunitatearen garapena sustatuz.
- Taldeak, baliabideak, zerbitzuak eta erakundeak dinamizatzea, antolatzea eta kudeatzea, hautemandako arazoak eta zailtasunak konpontzeko estrategia eta teknika egokienak sortuz eta erabiliz.
- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea garatzea, etikaren eta lanbidearen deontologiarekiko errespetuaren ikuspegitik.
- Gizarte-errealitatea eta gizarte eta hezkuntzako esku-hartze inguruak analizatzea eta ebaluatzea, laneko gaietarako hausnarketetan oinarrituko diren iritziak eman ahal izateko.
- Gizarte eta hezkuntzako jarduerari lotutako ikerkuntza eta berrikuntzako prozesuak diseinatzea eta garatzea, gizarte eta hezkuntzako arazoak konpontzeko bideak.
- Gizarte eta hezkuntzako gaietarako buruzko ideiak, argudioak, arazoak eta konponbideak ahoz adierazteko gai izatea, askotariko entzuleen aurrean.
- Laneko dokumentuak idazteko gai izatea, hainbat testuingururi buruzkoak eta askotariko irakurleei egokituak.
- Etengabeko prestakuntzarako jarrera ona izatea, gizarte eta hezkuntzako eskuhartzearen eta laneko garapenean hobetzen laguntzeko.

## ■ GRADUDUNAREN PROFILA

Gizarte Hezkuntzako graduduna gizarte eta hezkuntzako gaietan aditua izango da. Bere esku-hartzearen bidez, gizarte eta hezkuntzako aldaketa-prozesuak sortuko dira, pertsonen, gizartearen eta komunitatearen garapena sustatzeko. Horretarako, gizarte eta hezkuntzako programak, proiektuak eta planak diseinatu eta kudeatuko ditu, norbanako eta taldeentzat. Bere lanbideari dagozkion tresnak erabilita, pertsonen, taldeen eta komunitatearen bizitza-baldintzak hobetzeko asmoz jardungo du, zailtasunak eta desabantailak nagusi diren gizarte egoeretan.

## ■ LAN-MUNDUAN SARTZEA

Gizarte-hezitzaileen enplegu maila nabarmena da, eta horrek agerian uzten du; alde bate-tik, profesional hauek gizarte eta hezkuntzako jardueran duten garrantzia, eta, bestetik, gizartearen eremu garrantzitsuetan duten balioa. Era berean, sektorearen normalizazioak Gizarte Hezkuntzaren finkapena ekarri du, bai gizartean bai laneko esparruan. Lan-munduan sartzeko bide ugari zabaldu dira, laneko sektore honek esku-hartze eremuetan duen indarra agerian utziz:

- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea haur eta nerabeekin, babes-sistemetatik
- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea nerabeekin, gazteen justizia-arloan
- Esku-hartzea eremu sozio-kulturaletan eta aisialdiaren dinamizazioa
- Gizarte eta laneko esku-hartzea
- Esku-hartzea pertsona helduen etengabeko prestakuntzan
- Esku-hartzea gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsona helduekin
- Esku-hartzea droga-mendekotasunaren arloan
- Esku-hartzea adineko pertsonekin
- Esku-hartzea ezindu psikiko, fisiko eta sentorietan.
- Komunitateko esku-hartzea (baliabideak eta zerbitzuak).
- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea ingurumeneko hezkuntzan
- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea osasunerako hezkuntzan

## ■ EZARPEN-KRONOLOGIA

1. maila: 2010/11
2. maila: 2011/12
3. maila: 2012/13
4. maila: 2013/14